



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982

ARANTZABELA IKASTOLA



ELKARBIZITZA PLANA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua	4
3. Helburuak	5
3.1. Helburu orokorra	5
3.2. Helburu espezifikoak	5
4. Elkarbizitza-helburuen lorpena sustatzeko egiturak	7
4.1. Elkarbizitzaren Behatokia	7
4.2. Tutoretza	8
5. Bultzatu nahi ditugun jarrerak	9
6. Elkarbizitza Planaren zabalkundea	10
6.1. Ikasleekiko harremana	10
6.2. Familiekiko harremana eta komunikazioa	10
6.3. Eskola-jazarpenaren protokoloa	11
6.4. Beste plan batzuk	11
7. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazio	12
8. Eranskinak	13
1.eranskina: ikastolako bizikidetza arauak	13
2.eranskina: jokabide desegokiak erregulatzeko fitxa	14
3.eranskina: konpromisoak hartzeko fitxa: ikasleak	15
4.eranskina: konpromisoak hartzeko fitxa: ikasle, irakasle eta familiak	16

1. SARRERA

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen helburuen artean hauxe ageri da: “Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen normaltasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta joera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela”.

Helburu hau betetze aldera, dokumentu honetan, gure ikastetxeko elkarbizitza plana aurkezten dugu.

2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK. TESTUINGURUA

Arantzabela Ikastola Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako Proiektu publikoa eta dohainekoa da, D Ereduan diharduena eta bi lerrokoa. Gure Ikastola, Gasteizko Arantzabela auzoan kokatuta dago.

Urteak pasa ahala, ikastetxeko errealitatea pixkanaka aldatuz doa. Auzoa garatzen eta zabaltzen doan heinean, azken urteotan, etorkinen presentzia gero eta nabarmenagoa da. Hala, familien egoerak ere izan du aldaketa, egun, maila sozioekonomiko eta kultural ertain-baxua gailentzen delarik. Beraz, ikus daitekeen moduan, gizartean bizi den aniztasun soziala ikastetxean ere plasmitzen da.

Ikastetxe demokratikoa eta parte-hartzailea da gurea, hezkuntza elkarteak osatzen duten partaide guztien (gurasoak, ikasleak, irakasleak) eta norberaren askatasuna bermatzen duena, akonfesionala eta ideologia joera zehatzik gabea; gure ikasleen artean giza eskubide eta tolerantziarekiko begirunea bultzatuko duena.

Arantzabela ikastolan elkarbizitza positiboaren aldeko apustua egiten dugu, hau osatzen duten balioak zehatzuz, landuz eta arautuz; eta nola ez, gizabanako bezala ditugun eskubide, zeregin, betebeharrak eta mugak argituz eta adostuz.

3. HELBURUAK

3.1. HELBURU OROKORRAK

Eskola komunitateko kide guztiak askatasun eta harmonia giroan bizitzea. Bertan, norbera, entzuna, baloratua eta ondo sentitzea izango da garrantzitsua eta guztiok helburu komun baten bila ahaleginduko gara, ilusioz eta elkarri lagunduz, errespetuan, elkarrekintzan, berdintasunean, konpromisoan, oharpenean eta enpatian jardunez.

3.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

a) Elkarbizitza-giroarekin loturiko helburuak

- Komunitateko kide guztiak parte sentituko diren elkarbizitza positiboko giroa sortzea.
- Ikastetxeko elkarbizitza-arauak, gatazken tratamendu egokia eta jokabide desegokien aurkako irizpideak adostea eta berrikustea.
- Hezkuntza komunitate osoari zuzenduriko prestakuntza bermatzea elkarbizitzari loturiko gai ezberdinetan, besteak beste, kulturartekotasuna, emozioak, aniztasun afektibo-sexuala, gatazken prebentzioa eta kudeaketa...
- Irakasle-taldearen harremanak sendotzea komunikazio eta partaidetzaren bitartez.

b) Hezkidetzak

- Ikasleak, norberaren banakotasun eta berezitasunaren arabera, izaera eta identitate desberdinak onartuz eta errespetatuz hezteak.

c) Baloreak

- Harremanen oinarrian errespetua, tolerantzia, enpatia, elkartasuna, kritikotasuna eta konfiantza dituen ikastetxe bat izatea.

d) Kulturartekotasuna

- Ikastetxeko kultura guztien balioa onartzea eta aberastasun gisa hartzea.

- Diskriminazioa eta arrazakeria agertzen diren egoerak deseraikitzea eta baztertzea, gizabanako ororen eskubideak bermatuz.

e) Ikaskuntza emozionala

- Emozio ezberdinak ezagutu, onartu eta bideratuko dituen pertsonak heztea.


4. ELKARBIZITZA-HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

4.1. ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA

Elkarbizitzaren Behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeko baliabidea dugu. Elkarbizitza batzordeak jorratu, dinamizatu eta gaurkotu egingo du Elkarbizitza Plana eskola komunitateko sektore guztien ekimen eta iradokizun guztiak entzunez eta batuz.

- A) Elkarbizitza batzordeako partaideak: Zuzendaria, ikasketa burua, aholkularia, irakasle bat eta bi guraso.
- B) Elkarbizitza batzordearen funtzioak
- Elkarbizitza Plana abiarazi, jarraipena egin eta ebaluatu.
 - Ikastetxean elkarbizitza, diziplina eta errespetu giroa egon dadin saiatu.
 - Egunerokotasunean sortzen diren beharrak eta arazoak kudeatu eta elkarbizitza positiboratz bideratu.
 - Beharrak eta gatazkak kudeatzeko eta bideratzeko protokoloak proposatu, onartu eta hartu.
- C) Bileren maiztasuna: Elkarbizitza batzordea arazoak sortzen diren bakoitzean batuko da, gutxienez hiruhilabetean behin. Txosten bat egingo da tarte horretan arazoak sortzen badira, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak batuko dituen.

4.2. TUTORETZA



5. BULTZATU NAHI DITUGUN JARRERAK

- a) ***Prestakuntza integralerako eskubidea.*** Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko lagungarria izango den prestakuntza integrala jasotzeko eskubidea dute. Edukiak eta lan ohitura hartu ez ezik, garapen harmoniatsua, afektibotasuna, autonomia pertsonala, auto-estimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna ere garatuko dira.
- b) ***Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.*** Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.
- c) ***Ikasteko betebeharra.*** Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak ahalik eta gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez.
- d) ***Bertaratzeko betebeharra.*** Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentismorik izan gabe, sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatuz.
- e) ***Bizikidetza errazteko betebeharra.*** Ikasleek ikastetxean parte hartu eta laguntza eman behar dute, eskola-bizikidetza hobetzeko ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz. Horretarako Bizikidetza Arauak (ikus 1. eranskina) zeintzuk diren jakin behar dute; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztiak, pertsonak diren aldetik, errespetatu behar dituzte, sortzen diren gatatzak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta beti ere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz.
- f) ***Arauak errespetatzeko betebeharra.*** Ikasleek ikastetxeko antolakuntzako bizikidetzako eta diziplinako arauak errespetatu eta ezagutu behar dituzte.
- g) ***Instalazioak errespetatzeko betebeharra.*** Ikasleek ikastetxeko instalazioak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute. Ikasleen erantzukizuna da eragindako kalteak konpontzea ikastetxeak onartutako bizikidetza-arauen aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte.

Jokabide desagokiak dauden kasuetan, hauek erregulatzeko eta konpromisoak hartzeko fitxak beteko dira, ikasle, irakasle zein familiak inplikaturiko dituenak (ikus 2., 3., eta 4. eranskinak)

6. ELKARBIZITZA PLANAREN ZABALKUNDEA

6.1. IKASLEEKIKO HARREMANA

Irakasleen lana haurrak heztea eta pixkanaka-pixkanaka bizitzako eremu desberdinetan gizarteratzea da, beraien betebeharrak eta eskubideak ezagutzeko. Irakasleek arauak modu positiboan azaldu behar dizkiete eta ez debeku zerrenda biltzen; arau bakoitzaren arrazoiak ere eman behar dira ikasleek hauen zergatiak uler ditzaten.

Garrantzitsua da irakaslea arretaz egotea eta ikasleak ondo portatzen direnean zoriontzia jokabide positibo hauek indartzeko. Kontuan hartu behar dugu ikasleen auto-estimua oso inportantea dela bere garapenerako.

Argi utzi behar diegu ikasleei, bere portaera desegokia denean, haserretzen eta nahigabetzen garela, baina pertsona eta ikasle den aldetik berdin onartzen dugula. Gure ikasleak arduratsuak eta diziplinatuak izatea lortu behar dugu eta hori ekinaren ekinez ikasten dute.

Hitzak haizeak eramaten ditu; eredia da sakoneraino iristen dena, gu irakasleok eredu paregabea gara; horregatik, ezinbestekoa da geure burua eguneroko ekintzetan diziplinaz, kontrolez eta segurtasunez agertzea haien aurrean.

6.2. FAMILIEKIKO HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA

Eskolan bizikidetzaren egokia lortzeko ezinbestekoa familiekiko harreman gardena izatea. Horretan indar berezia hartzen du Oihan Guraso Elkarteak. Honek eta ikastolako Zuzendaritza taldeak behar duten guztirako laguntza ematen diote elkarri.

Bai Ikastetxeko Zuzendaritzak eta bai Guraso Elkarteak familiei informazioa helarazten diete beren seme-alaben hezkuntzarekin lotutako guztiori buruz (hitzaldiak, elkarrizketak...). Gurasoei berehala jakinarazten zaie ikasleekin zerikusia duen edozein kontu adierazgarri.

Familiek elkarbizitza planean zehaztutako ildoak ezagutzea ezinbestekoa da; hau horrela, informazioa bide ezberdinetatik zabaltzean da:

- Ikastolako webgunean: Elkarbizitza Plana”
- Eskolako beste dokumentuetan erreferentzia egiten zaio: Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean.
- Tutorearekin eginiko bilerak:
 - o Taldeka, urtean behin gutxienez eta ikasturte hasieran, adostutako helburuak, irteerak eta bizikidetzaren arauak informatzeko.
 - o Bakarka, gutxienez 2 aldiz ikasle bakoitzaren jarraipen zehatza eramateko, eta hortik at beharrezkoa den guztietan.

6.3. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA ESKOLA-JAZARPENAREN PROTOKOLOA

Ikastetxeko Antolakuntza eta Jardunbide Araudian (AJA) daude zehaztuta ikastetxeko bizikidetzaren aurka doazen jokabideak eta hauen baitako neurri zuzentzaileen zerrenda eta prozedura.

Honekin batera, zuzendaritzan eskuragarri egongo da Hezkuntza Departamenduak daukan eskola-jazarpenaren inguruko protokoloa, ikasturte hasieran klaustroan eta OOGan aurkeztuko direnak, jazarpen zantzua duten portaeran egonez gero jarraitu beharreko prozedurekin batera.

6.4. BESTE PLAN BATZUK

Ikasturte honetan, “Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioarako plana” eta “Agenda30 plana” abiaraziko ditugu, elkarbizitza egokirako ezinbestekoak diren balioak lantzeko bide emango digutenak.

7. ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikasturteko Elkarbizitza Plana berrikusteak, kemena, baliabideak eta planifikazioaren beharra dakarkigu erantzun zehatzak eta adostuak emateko eguneroko bizitzan sorturiko hainbat egoerei.

Ikasturte hasiera bakoitzean denboraldi bat eman beharko dugu ikastetxearen funtzionamendu egokirako garrantzizkoak izan daitezkeen gaien hausnarketa egiteko eta komunean jartzeko hezkuntza komunitateko erakunde bakoitzaren ikuspenak eta beharrak.

Bizikidetza Planaren berrikustea lau ataletan bana dezakegu:

- 1) Sentsibilizazioa eta bizikidetza baikorra sustatzeko beharra.
- 2) Bizikidetzarako esparru guztietako egoeraren diagnostikoa: errealitatea, zailtasunak eta zergatiak aztertu.
- 3) Bizikidetza planaren Planifikazioa eta Interbentzio Programa: bizikidetza positiboa, gatazken prebentzioa eta konponketa.
- 4) Jarraipena eta ebaluazioa. Hobekuntza eta jarraitzeko proposamenak.

Ikasturte amaieran, hasieran definitutako eta aukeratutako helburuak baloratuko dira eta datorrenerako aurreikuspenak egin.

8. ERANSKINAK

1. eranskina: ikastolako elkarbizitza arauak

IKASTOLA BARRUAN

- Euskaraz hitz egingo dugu.
- Lasaitasunez eta errespetuz hitz egin eta tratatuko ditut bai ikasle bai irakasle, bai gure kargu dauden hezitzaileak.
- Irakasleen ardurapean gauden aldetik, haiek esandakoari kasu egingo diogu.
- Hiztegia egokia erabiliko dut, biraorik esan gabe
- Norbaitek hitz egiten duenean, entzun egingo dut, hitz egiteko txanda errespetatuz
- Eskolako materiala eta eremuak zaindu eta modu egokian erabiliko dut, baita ikaskideen gauzak ere.
- Klaseak bukatzean nor bere eremua garbi eta ondo jasota utziko dut.
- Pasiloan lasai ibiliko gara (ez dugu bultzarik, garrasirik, korrika egingo...) eta eskailerak behar bezala erabiliko ditugu.
- Ezin da baloia eta pilotaz ikastola barruan jolastu. Eskuetan eraman behar da.

KOMUNETAN

- Erabilera egokia emango diegu eta txukun mantenduko ditugu.
- Ikastolan ikasle eta irakasle komunak daude, bakoitzak dagokiona erabili dezan.

SARRERA-IRTEERETAN

- Ikastolako ateak sarrera ordutik hamar minutura itxiko dira.
- Ikastolatik sartzeko eta ateratzeko nor bere sarrera eta irteera erabiliko du. Behar den lekutik sartu edo irtengo gara.
- Poliki sartuko eta irtengo gara, inori trabarik ez egiteko
- Ikasleak ikastolara bakarrik sartuko dira.
- Ordutegi barruan ikasleak ezin izango dira ikastolatik atera. Irten beharra izanez gero, tutoreari jakinarazi beharko zaio.
- Bila etortzen direnean, atezaina arduratuko da ikaslea gelatik ateratzen.

JOLASTOKIAN

- Zaintzaileak eta nire kideak errespetuz tratatuko ditut
- Gure jolasetan denok parte hartzeko aukera izango dugu.
- Aldez aurretik ezarritako eremuetan jolastuko dugu
- Euria egiten duenean, baloiak geletan utziko ditugu eta ikasleek frontoian edo geletan egon beharko dute.
- Frontoia ez da baloiarekin jolasteko lekua; beraz, baloia frontoitik kanpo bakarrik erabili ahal izango da.
- Txirrinak jotzean, gelara joango gara.

- 2.eranskina: jokabide desegokiak erregulatzeko fitxa

JOKABIDE DESEGOKIAK ERREGULATZEKO FITXA

IZEN-ABIZENAK:

DATA:

1. Zer gertatu da?

2. Zergatik egin dut?

3. Zeintzuk izan dira ondorioak?

4. Zer sentitu dut?

5. Zer egingo dut egin dudan kaltea konpontzeko eta nire jarrera aldatzeko?

- 3.eranskina: konpromisoak hartzeko fitxa - ikasleak

KONPROMISOAK HARTZEKO FITXA: IKASLEAK

IZEN-ABIZENAK:

DATA:

KONPROMISOA

Nik _____, _____
aurrean egonda, _____-(r)i egin diodan kaltea konpontzeko eta
pertsona horrengan izan dudan errespetu faltagatik (joz, irainduz, gezurrak esanez,
oihukatuz...) hau egingo dut:

	Barkamena eskatuko diot
	Bere alde onak behatuko ditut
	Berarekin jolastuko dut
	Beste batzuk:

IKASLEAREN SINADURA:

IRAKASLEAREN SINADURA:

KONPROMISOA BIRPASATZEKO EPEA (aste bat):

- 4.eranskina: konpromisoak hartzeko fitxa - ikasle, irakasleak eta familia

KONPROMISOAK HARTZEKO FITXA: IKASLE, IRAKASLE ETA FAMILIAK

DATA:

IKASLEA:

Ondorengo konpromisoa hartzen du:

IRAKASLEA:

Ondorengo konpromisoa hartzen du:

ETXEKOAK:

Ondorengo konpromisoa hartzen dute:

Konpromisoa betetzen ez bada ikasleak honako hau egin beharko du:

Konpromiso hauek _____-an aztertuko dira.

IKASLEA

IRAKASLEA/TUTOREA

ETXEKOAK